



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO ABENDUAREN 20AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosok eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA:

*** 2016/11/29KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2016ko azaroaren 29ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- IRAZU KALEA 12 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0391

IRAZU KALEA 12 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20910436) ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST S.L. administratzaileak, Irazu kalea 12 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 146.183,62 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 450 €
	Fidantza (%120): 540 €

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendari Nagusiak aldeko txostena eman du 2016ko azaroaren 30ean.

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andereak, 2016ko abenduaren 13an ALDEKO txostena eman du.



Usurbilgo Udala

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: IRAZU KALEA 12 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20910436) ordezkaritzan diharduen B & A INMOGEST S.L. administratzaileari, Irazu kalea 12 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean eta zuinketa akta izenpetu aurretik:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 450 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (540 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

540 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2016-0391*” jarriaz kontzeptuan.
- TCGA ARQUITECTOS taldeko Iñaki Tanco Hualde, José Costoya Gutierrez eta Imanol C. García de Albéniz arkitektoek 2015eko abenduan (EHAE0 2016-08-03) idatzitako Proiektuari eta 2016ko urrian idatzitako eranskinari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak udal zerbitzu teknikoaren bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- Proiektuaren erredaktatzaileari dagokion erantzukizunaren inguruan, ohartarazten da, Eraikuntzaren Kode TEknikoaren 1 Zatik 1. Atalaren 2. Artikulua, “ámbito de aplicación”-en 3. Puntua.
- Orohar, irisgarritasun araudiak eta EKT-k ezarritako neurriak bete beharko dira, bereziki:
 - Igogailuaren kabinak gutxienez 90 x 120 cm-ko neurriak.
 - Igogailuaren ateak 80 cm-ko pasabide librea.
 - Kanpotik igogailurainoko koskak kenduko dira.
 - Igogailuak etxebizitzak dauden solairu guztiei emango die zerbitzua.
 - EKT-ek ezarritako eskubarandak jarri beharko dira.



Usurbilgo Udala

- Igogailuak indarren den araudia eta Soinuaren legeak ezarritako soinu gehiengoa bete beharko du etxebizitzaren eremuan, horretarako proiektuan eta obran beharrezkoak diren neurriak hartu beharko direlarik.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - a. Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - b. Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - c. Obraren egikaritzea epe gehiengoa: urte 1.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzean zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra Amaierako planuak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUARI DAGOKION URBANIZAZIO PROIEKTUA (2015 OTSAILA) BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.03/2013-0030



Usurbilgo Udala

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 27an, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Urbanizazio Proiektua **HASIERAZ ONARTZEA** erabaki zuen, baina proiektua jendaurrean jartzea baldintzatu zuen. Hitzez hitz ondokoa erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko uztailaren 16an Urbanizazio Proiektuaren hasieraz onartuz hartutako erabakia bertan behera uztea.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuari dagokion Urbanizazio Proiektua (2015 otsaila) HASIERAZ onartzea udal zerbitzu teknikoek beren txostenetan zehaztutako baldintzekin.

HIRUGARRENA: Urbanizazio proiektua jendaurreko erakustaldian jarri aurretik, urbanizatzeko lanen fasekako egikaritze bitartean, urbanizatu gabeko lursailen egoera jasotzen duen dokumentazioa (deskribapena eta planuak, oin-bakidurak) aurkeztu beharko ditu interesatuak.

LAUGARRENA: Behin dokumentazioa aurkeztu eta udal zerbitzu teknikoek onzat eman ondoren, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espediente jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

BOSGARRENA: Urbanizazioa bi fasetan bereizita egon arren, eremu osoari dagozkion azpiegiturak egikaritu beharko dira lehen fasearekin batera; eginbehar honetatik salbuetsita geratzen dira bigarren faseko eraikinei eta urbanizazioari soilik eragiten dieten azpiegitura eta urbanizazio atalak. Lan hauek ezinbestean egin beharko dira Udalarekin adostutako bi faseen arteko trantsizio egoeraren kalterik gabe eta modu egokian.

SEIGARRENA: Jaureguizar Promoción y Gestión Inmobiliaria S.L.ri gogoraraztea 2005eko uztailaren 22an sinatutako hitzarmenean zehaztutakoaren baitan, gaur egun bere osotasunean bete gabe dauden konpromezu ekonomikoek gain, Urbanizazio Proiektua behin betiko izaeraz onartu eta hamabost eguneko epean 256.898 euroko zenbatekoa ordaindu behar duela, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera kontsumoen prezioen indizearekin eguneratuz, Usurbilgo udalarekin 2005eko uztailaren 22an sinatutako hitzarmenaren baitan.

ZAZPIGARRENA: Jaureguizar Promoción y Gestión Inmobiliari S.L.ri gogoraraztea obrak hasi aurretik 2005eko uztailaren 22an sinatutako hitzarmenaren laugarren klausulan zehaztutakoak bete beharko dituela.

ZORTZIGARRENA: Erabaki honen berri lurjabeei ematea.

DOKUMENTAZIO OSAGARRIA

Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia kontutan izanik, JAUREGUIZAR enpresak, 2016ko urriaren 14ean, dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiuren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazio osagarria aztertu ostean, ondoko txostena eman zuen 2016ko urriaren 24ean:



Usurbilgo Udala

UA2016_03_08

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
HIRITARTZE OBRAK

A-59 UGARTONDO EREMUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN ALDAKETA
ERANSKINARI TXOSTENA

ESKATZAILEA: Iñaki Bazterrika, JAUREGIZA S.L.-ren izenean.

ESKAERA: A-59 Ugartondo Eremuko Urbanizazio Proiektuaren ALDAKETA izapitzea.

ESKAERA DATA: 2016-10-14

KOKAPENA: A-59 Ugartondo. Usurbil.

ERREDAKTATZAILEA: Manu Arruabarrena Florez arkitektoa, Santiago Peñalba Garmendia arkitektoa, Pedro M^a Azkue Elozegi bide ingeniaria eta ENDARA S.L. Ingenieritza.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.01/2013-0030

AURREKONDUA PEM:

Aurrekontua Urbanizaizo I fasea	1.422.577,17 EURO
Aurrekontua Urbanizazioa II fasea	709.809,64 EURO
Aurrekontua Urbanizazioa GUZTIRA	2.132.386,81 EURO

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA:

kontzeptua	Hondakinen kudeaketa azterlana aurrekontua	Fidantza (%120)
Urbanizazioa I fasea	23.077,32 EURO	27.692,78 EURO
Urbanizazio I fasea	3.841,32 EURO	4.609,58 EURO
URBANIZAZIOA GUZTIRA	26.918,64 EURO	32.302,36 EURO

AURREKARIAK

- 2013ko urtarrilaren 16an JAUREGIZAR S.L.-k A-50 Ugartondo Eremuko Urbanizazio Proiektua aurkeztu du.
- 2013ko ekainaren 24an udal aparejadorearen txostena.
- 2013ko ekainaren 21ean eta 27an ingurumen teknikariaren bi txostenak.
- 2013ko ekainaren 26an Ekhiñe Egituzen udal arkitektoak txostena idatzi zion, Urbanizaizo Proiektua ontzat emateko bete beharko liritekeen baldintzak zehaztuz.
- 2013ko ekainaren 28an udal idazkariaren txostena.
- 2013ko uztailaren 4an udaltzaingoaren txostena.
- 2013ko uztailaren 16an Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, Urbanizazio Proiektua hasierako onespina emanez.
- 2014ko uztailaren 30ean interesatuaren idatzia, Urbanizazio Proiektuaren bertsio berria aurkeztuz.
- 2014ko uztailaren 30ean interesatuak A-59 Ugartondo Eremuko Urbanizazio Proiektuaren aldaketa aurkeztu du.
- 2014ko azaroaren 17an Joxean Erasun udal arkitektoaren txostena A-59 UGARTONDO eremuko URBANIZAIZO PROIEKTUAREN ALDAKETA ontzat emateko bete beharreko baldintzak zehaztuz.
- 2014ko abenduaren 2an Zerbitzu eta Mantenu Saileko buruaren txostena.
- 2014ko abenduaren 22an udaltzainburuaren txostena.
- 2015eko otsailaren 26an Iñaki Bazterrika jaunak, JAUREGIZAR S.L. enpresaren izenean A-59 UGARTONDO eremuko Urbanizazio Proiektuaren Aldaketa aurkeztu du Udalean.



Usurbilgo Udala

14. 2016ko maiatzaren 19an udal arkitektoak txostena eman zuen.
15. 2016ko irailaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak Urbanizazio Proiektua haseraz onartu zuen, teknikarien txostenetan jasotako baldintzekin.

Erlazionatuak;

HZ.06/2015-528: A-59 UGARTONDO EREMUKO 8. LOKALEKO LURZOARUAREN KALITATEAREN IKERKETA
HZ.01/2005-0380 A-50 UGARTONDO EREMUKO PLAN BEREZIA
HZ.01/2008-0488 A-59 UGARTONDO EREMUKO PAU-URBANIZATZEKO JARDUKETA PROGRAMA
HZ.01/2014-0428 A-59 UGARTONDO EREMUKO PAU- URBANIZATZEKO JARDUKETA PROGRAMAREN ALDAKETA:
HZ.01/2009-0490 A-50 UGARTONDO EREMUKO JARDUKETA-SISTEMA ALDATZEA; HITZARMEN SISTEMA/KONTZERTAZIO SISTEMA
HZ.02/2010-0478 A-59 UGARTONDO KONTZERTAZIO JUNTAREN OSAKETA
HZ.01/2011-0454 A-59 UGARTONDO EREMUKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA
HZ.01/2010-0555 A-59 UGARTONDO EREMUKO URBANIZAZIO PROIEKTUA

TXOSTENA

Iñaki Baztarrika jaunak, JAUREGIZAR S.L. –ren izenean A-59 UGARTONDO Eremuko Urbanizazio Proiektuaren Aldaketari dokumentazio gehigarria aurkeztu dio, haren izapidetzea egin dadin. Dokumentazio gehigarri hori osatzen dute; idatzia, planuak eta Urbanizazio Proiektuaren erredaktatzaileen tituluak.

Dokumentazioa aztertuta, berau ONTZAT hartzen da eta beraz, Urbanizazio Proiektuaren Aldaketarekin batean jarri beharko da jendaurrean. Gainontzean, aurreko txostenetan ezarritako baldintzak berresten dira.

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe.

Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2016ko urriaren 24an
UDAL ARKITEKTOA/ HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA
Izta.: Ekhiñe Egiguren

JENDAURREKO EPEALDIA

Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia eta udal arkitektoak dokumentazio osagarria ontzat ematen egindako txostena kontutan izanik, urbanizazio proiektua jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (206. zenbakia): 2016-10-31
- Berria: 2016-10-28
- Gara: 2016-10-28
- El Diario Vasco: 2016-10-30



Usurbilgo Udala

Jendaurreko epealdia 2016ko azaroaren 29an amaitzen zen. Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean EZ da alegaziorik aurkeztu.

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTEN BERRIA

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2016ko azaroaren 16an, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko Urbanizazio Proiektuaren inguruan ondoko txostena helarazi du:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA

URBANIZAZIOA EGITERAKOAN ZUZENDU BEHARREKOAK

PROIEKTUA: Ugartondo urbanizazioa
SUSTATZAILEA: Jaureguizar S.L.
KOKAPENA: A-59 Ugartondo (Kalezar)
ESP. ZENB: HZ.01/2013-0030

AURREKARIAK:

2016ko ekainaren 22an Ugartondo urbanizazioa eraikitzerako kaleko argien ezaugarriak hurrengoak izatea proposatu zuen Zerbitzu eta Mantenua sailak:

	LUMINARIAK	ZUTABEAK
Errepideak	VIALIA EVO LED 80w	10 mtkoak, arrabotatu edo "zepilatutako" aluminiozkoak SERMETO etxeakoak
Ibilbideak	CLAR LED 40w	4.00mtkoak arrabotatu edo "zepilatutako" aluminiozkoak SERMETO etxeakoak.

Pikaola urbanizazioa eraikitzeke herriko argien ezaugarriak hurrengoak izan behar zutela proposatu zuen Zerbitzu eta Mantenua sailak:

	LUMINARIAK	ZUTABEAK
Errepideak	BENITO LIGHT NEBRASKA 96w ADVANCE	10 mtkoak, arrabotatu edo "zepilatutako" aluminiozkoak SERMETO etxeakoak
Ibilbideak	BENITO LIGHT DECO HORIZON 48w ADVANCE	4.00mtkoak arrabotatu edo "zepilatutako" aluminiozkoak SERMETO etxeakoak.
	* Luminaria mota, Ugartondo urbanizazio guztirako erabiltzea proposatzen da.	

Zerbitzu eta Mantenua sailetik proposatzen da, Ugartondo urbanizazioa eraikitzeke ezarri behar diren baldintzetan, herriko argiak hurrengo ezaugarriak izatea:



Usurbilgo Udala

	LUMINARIAK	ZUTABEAK
Errepideak	BENITO LIGHT NEBRASKA 96w ADVANCE	10 mtkoak, arrabotatu edo "zepilatutako" aluminiozkoak SERMETO etxeoak
Ibilbideak	BENITO LIGHT DECO HORIZON 48w ADVANCE	4.00mtkoak arrabotatu edo "zepilatutako" aluminiozkoak SERMETO etxeoak.

2016ko azaroaren 16an
Zerbitzu eta Mantenua saileko burua
Feix Aizpurua Arzallus

LURZORUAREN KALITATEARI BURUZKO ADIERAZPEN EBAZPENA

2016ko azaroaren 10ean jaso da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaria 2016ko azaroaren 2 Ebazpena. Ebazpen horren bidez, lurzorua kalitatearen adierazpena ematen zaio Ugarte industriguneko 8. lokalean dagoen partzelaren lurzoruari, ekainaren 25eko 4/2015 Legean, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoan araututako lurzorua kalitatearen gaineko adierazpena egiteko prozeduraren arabera. Lursail horretan, garai batean TALLERES ZUBIZARRETA enpresak gauzatu zuen bere jardura industrial. Bertan, behin betiko izaerarekin honakoa ebatzen da, besteren artean:

RESOLUCIÓN de 2 de noviembre de 2016 de la Directora de Administración Ambiental, por la que se declara la calidad del suelo correspondiente al emplazamiento donde desarrolló su actividad TALLERES ZUBIZARRETA, ubicado en el local nº 8 del Polígono Industrial Ugarte, en el término municipal de Usurbil (Gipuzkoa), de acuerdo con el procedimiento regulado en la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

(...)

RESUELVO

Primero.- Declarar como suelo no alterado para el uso urbano, en los términos señalados en la Ley 4/2015, de 25 de junio, el correspondiente al emplazamiento donde desarrollo su actividad TALLERES ZUBIZARRETA, ubicado en el local nº 8 del Polígono Industrial Ugarte, en el término municipal de Usurbil (Gipuzkoa), y ello de conformidad con los resultados de la investigación de la calidad del suelo realizada en dicho emplazamiento atendiendo al uso en él previsto.

La presente declaración de la calidad del suelo se formula en relación con el emplazamiento señalado en el párrafo anterior y que afecta a la finca que se identifica a continuación:

- Finca 11420, de Usurbil, inscrita en el Registro de la Propiedad 4 de Donostia/San Sebastián, Tomo 1823, Libro 230, Folio 92.

En el Anexo de esta Resolución se incorporan planos de ubicación del emplazamiento objeto de declaración de la calidad del suelo.



Usurbilgo Udala

De conformidad con la presente declaración, dicho emplazamiento es compatible con el uso urbano a efectos de, la Ley 4/2015, de 25 de junio.

Segundo.- Previamente a la demolición de los edificios, se deberá presentar información que demuestre que se ha llevado a cabo la gestión de la ruina industrial presente en el mismo: gestión de todos los residuos identificados, saneamiento de las paredes y soleras que se indica que están afectadas en las edificaciones existentes y gestión de los residuos resultantes de dichas labores de saneamiento.

En dicha documentación se incluirá información sobre la ubicación del depósito subterráneo de fuelóleo que se cita, a pesar de que este no se encuentre en el emplazamiento objeto de la presente resolución.

Respecto a la gestión del fibrocemento identificado, se deberán cumplir los requisitos recogidos en el *Decreto 396/2006, de 31 de marzo, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud aplicables a los trabajos con riesgo de exposición al amianto*.

El material deberá ser retirado por una empresa autorizada, previa aprobación por parte del organismo laboral competente del correspondiente Plan de trabajo específico para la manipulación y eliminación de residuos con amianto.

Adicionalmente, cabe recordar que es de obligado cumplimiento todo lo establecido en el Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción, en lo que se refiere a la gestión / reutilización de residuos de construcción y demolición. La posibilidad de reutilización de esta tipología de residuos en el propio emplazamiento o fuera de éste, pasa por el cumplimiento de todo lo establecido en el citado Real Decreto. En esta misma línea se atenderá a lo recogido en la Orden de 12 de enero de 2015, de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, por la que se establecen los requisitos para la reutilización de los áridos reciclados procedentes de la valorización de residuos de construcción y demolición.

Asimismo, la gestión de los residuos en la obra deberá efectuarse en atención a lo dispuesto en el Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición. Dicho Decreto tiene como objeto fundamental prevenir la generación de tales residuos, así como favorecer su reutilización, reciclado y otras formas de valorización. En consecuencia, únicamente podrán eliminarse en vertedero los residuos de hormigón que se puedan generar, si se acredita que dichos residuos no son valorizables en alguna de las plantas autorizadas para la obtención de árido secundario a partir de dichos residuos.

Tercero.- Imponer a José María Zubizarreta, en su condición de sujeto pasivo, la obligación de abonar una tasa de 200 euros por la emisión de la presente declaración de calidad del suelo.

Sobre la cuota calculada se podrán aplicar las bonificaciones previstas en la normativa en el caso de que se acredite ante este órgano que se trata de una microempresa o una pequeña o mediana empresa, de conformidad con la



Usurbilgo Udala

definición de la Recomendación de la Comisión nº 2003/361/CE de 6 de mayo de 2003, y/o que se encuentra inscrita en el registro europeo EMAS.

Cuarto.- En el caso de que en un futuro sea necesaria la excavación de materiales en el emplazamiento, será necesario redactar un plan de excavación que deberá ser aprobado por el órgano ambiental. Entre otros aspectos, el plan de excavación a elaborar deberá contemplar la vía de gestión adecuada de los materiales a excavar, que si es externa deberá ser, determinada mediante su caracterización según lo establecido en el *Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos y en el REGLAMENTO (UE) No 1357/2014 DE LA COMISIÓN de 18 de diciembre de 2014 por el que se sustituye el anexo III de la Directiva 2008/198/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, sobre los residuos y por la que se derogan determinadas Directivas.*

Quinto.- Comunicar el contenido de la presente Resolución a José María Zubizarreta, a la Junta de Concertación de la U.E. A-59-Ugartondo, a GEDI GRUPO DE PROMOCION E INFRAESTRUCTURAS, S.A., a CAJA RURAL NAVARRA S. Coop., al Ayuntamiento de Usurbil, a JAUREGUIZAR, S.L. y a TEKNIMAP Energía y Medio Ambiente, S.L.

La notificación de la presente Resolución al Registro de la Propiedad 4 de San Sebastián se realizará una vez sea firme en vía administrativa.

Sexto.- Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse Recurso de alzada ante el Sr. Viceconsejero de Medio Ambiente, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación, de conformidad con los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de noviembre de 2016

Izpta./Fdo.: Alejandra Iturrioz Unzueta
INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA

Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena ebazpen hau aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2016ko abenduaren 1ean, emandako txostenean, aurreko txostenetan esandakoa berrestearekin batera, zera adierazi du: **ezinbestean Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpen Ebazpenean (DCS-42/15-NP) jasotako baldintzak eta orohar, horien betetzetik eratorritakoak bete beharko dira urbanizazio lanak hasi aurretik.**

Udal zerbitzu teknikoen txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuari dagokion Urbanizazio Proiektua (2015 otsaila) behin betikoz onartzea udal zerbitzu teknikoek beren txostenetan zehaztutako baldintzekin.

BIGARRENA: Urbanizazioa bi fasetan bereizita egon arren, eremu osoari dagozkion azpiegiturak egikaritu beharko dira lehen fasearekin batera; eginbehar honetatik salbuetsita geratzen dira bigarren faseko eraikinei eta urbanizazioari soilik eragiten dieten azpiegitura eta urbanizazio atalak. Lan hauek ezinbestean egin beharko dira Udalarekin adostutako bi faseen arteko trantsizio egoeraren kalterik gabe eta modu egokian.

HIRUGARRENA: Jaureguizar Promoción y Gestión Inmobiliaria S.L.ri gogoraraztea Usurbilgo udalarekin 2005eko uztailaren 22an sinatutako hitzarmenean zehaztutakoaren baitan, Urbanizazio Proiektua behin betiko izaeraz onartu eta hamabost eguneko epean 256.898 euroko zenbatekoa ordaindu behar duela, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera kontsumoen prezioen indizearekin eguneratuz.

LAUGARRENA: Jaureguizar Promoción y Gestión Inmobiliari S.L.ri gogoraraztea obrak hasi aurretik 2005eko uztailaren 22an sinatutako hitzarmenaren laugarren klausulan zehaztutakoak bete beharko dituela.

BOSGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

SEIGARRENA: Erabaki honen berri sustatzaileei ematea.

4.- VIVIENDAS LANIN, S.L. ENPRESARI, HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO S-6 (AGERREAZPI) SEKTOREKO BEP 3.3 PARTZELAN ERAIKITAKO 12 ETXEBIZITZEI, GARAJE ETA TRASTELEKUEI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0061

VIVIENDAS LANIN, S.L. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoroko BEP 3.3 partzelan eraikitako 12 etxebizitza, garaje eta trastelekuen lehen erabilera baimena eskatzen du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko ekainaren 24an eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: VIVIENDAS LANIN, S.L. enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoroko BEP 3.3 partzelan 12 etxebizitza, garajeak eta trastelekuak eraikitzeko udal baimena ematea.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera eraikitako 12 etxebizitza, garaje eta trastelekuen lehen erabilera baimena eskatu da.



Usurbilgo Udala

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagozkion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2016ko abenduaren 13an, Aldeko txostena eman du.

Bestetik, zerbitzu eta mantenua saileko buruak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagozkion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2016ko azaroaren 28an emandako txostenean honela dio hitzez:

(...)

Udal zerbitzuetako sare nagusien lotuneak era egokian egin direnez, ur zikinen, euri uren eta ur edangarriaren lotuneak ontzat ematea proposatzen da.

(...)

Azkenik, Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, hondakin gelaren exekuzio ontzat eman arren, sustatzaileak etxebizitza bakoitzarentzat zintzilikagailu bat jarri behar duela jakinarazi du.

Guzti hau kontutan izanik Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: VIVIENDAS LANIN, S.L. enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreko BEP 3.3 partzelan eraikitako 12 etxebizitzetara, garaje eta trastelekuei LEHEN ERABILERA baimena ematea.

BIGARRENA: Sestraperko aparkalekua erabili ahal izateko garajearen irekiera baimena jasotzea ezinbestekoa izango da.

HIRUGARRENA: Hondakin gelari dagokionez, etxebizitza bakoitzarentzat zintzilikagailu bat jarri beharko da ezinbestean ingurumen teknikaria esandakoaren arabera.

LAUGARRENA: Aldez aurretik dagokion Udal zerga ordainduko da.

BOSTGARRENA: Erabaki hau interesatuei, udal erroldako arduradunari, ur zerbitzuaren ordainketa-erroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria, Kontuhartzaileari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.